

A black and white photograph of Mikel Laboa performing on stage. He is shown in profile, facing left, playing an acoustic guitar. He is wearing a dark shirt. In the foreground, there are two microphones on stands, one of which is positioned near his mouth. The background is dark, and the lighting is focused on the performer.

# Mikel Laboa

Usurbilen 1985eko Uztailak 4

## KANTU GUZTIEN KANTUARI

Damurik gabe, atzokoaren damurik gabe; beldurrik gabe,  
biharkoaren beldurrik gabe, nahi dut gaur kantua hel dakidan,  
nahi dut zuei kantua hel dakizuen.

Ez da enea kantua; ez da zuena, oraino, nahiz eta nigan, nahiz  
eta zuengan, betitik datzan, ernatzeko zorian, loratzeko zain.

Guk geuk gugan baino, beragan gauzka kantuak. Guk geuk  
kantua baino, kantuak gaitu gu hautatzen, kantu-ontzi izanez,  
kantu-bide izan gatzaizkion.

Ez dagokio besterik kantariari, kantatzen uztea kantuari.

Ederrik denean, beraz, ez beha kantariari, kantuarena da hori.  
Okerrik denean, aldiz, ez dagokio kantuari okerraren errurik,  
kantariari baizik.

Urruna dugu kantu hau, eta hurbila, hurbilik bada;  
urrunena urrunetan, izar guztiek dutenez lotkarri,  
hurbilena hurbiletan, bihotz muinean duguna iturri...  
katurik haundiena, tokirik ttikienean.

Kantu bakarra.

Gure kantu honek ez du inork derraken hitzik,  
ez eta, ozena izan arren, ia inork dentzukeen hotsik;  
hala ere badu aski hatsik, kantuz asebetetzeko gertu ta prest dena hutsik.

Esana dagoena kantatzera, idatzita dagoena irakurtzera darama kantuak  
kantaria, lehen ikusten ez zuena orain erakustera, gero ikusiko duena  
orain adieraztera.

Kantua kantu denean, kantaria ez da ikusten, kantuak bait digu ezkututzen.  
Kantuak ez duenean kanturik, ez da nabarmen kantaria baizen,  
ez bait du non eskutaturik.

Iraganaren damurik gabe, etorkizunaren beldurrik gabe,  
betorkigu gaur kantua, zuei doakizuen; hel bekigu, hel dakizuen kantua  
zuei, oraingooi, hemen zaudeteno, i,  
zuei, lehengooi, hemendik joandakooi,  
zuei, gerokooi, honera etortzekooi;

bekizue guztioi dagokizuena; bekizue eguzkia bezainbat,  
eguzkia bezain berri, bezain zahar den gure kantu hau:

gaurko kantu, gaurkoontzat,  
atzoko, atzokoontzat;  
biharko, biharkoontzat,  
eta betiko kantu denontzat...

Eta denean okerrik, oroi, ez egotz errurik, otoi,  
betiko kantuari, eta bai egungo kantariari.

1985. Bazkokari.  
J.A. Artze

## BENTARA NOA


*Bentara noa, bentatik nator  
bentan da nere gogoa.  
Bentako arrosa kabelinetan  
hartu dut amorioa.*

Herrikoia



## URSUA

Baztango Ursua Etxearen omenezko konposizioa.  
Instrumentala: Kitarra + sintetizagailua.  
Musika: M. Laboa



## IHESA ZILEGI BALITZ

*Ihes betea zilegi balitz  
nunbait balego bakea  
ni ez nintzake etxe ertzeko  
loredien maitalea.*

*Ni ez nintzake oinazearen  
menpeko mixerablea  
oihu zekenen destinatzaile  
etsipenaren semea.*

*Ni ez nintzeko iñorentzako  
askandaluzko kaltea  
lur hotz batetan aldatutako  
landare sustrai gabea.*

*Ihes ederra zilegi balitz  
urra ahal baledi katea  
ni ez nintzake ontzi gabeko  
itsasgizon ahalgea.*

Hitzak: X. Lete  
Musika: M. Laboa

## BAZTAN

*Ez nago ziur  
bainan egunsentiarekin  
izango zen  
Baztango bazterrak  
nere logelan  
hasi ziren  
sartzen eta sartzen  
Lekurik ezak, nunbait  
esnatu ninduen  
segituan jautzi nintzen  
nun nengoen  
Lehioa ireki nuen  
eta emeki emeki  
Baztango lurrean  
Baztan baitan  
Baztan izan nintzen.*

Hitzak: J.A. Artze  
Musika: M. Laboa



## EZ NAU IZUTZEN NEGU HURBILAK

*Ez nau izutzen negu hurbilak  
uda betezko beroan  
dakidalako iraute duela  
orainak ere geroan  
nolabaitezko kate geldian  
unez uneko lerroan  
guztia present biurtu arte  
nor izanaren erroan*

*Ez nau beldurtzen egunsentian  
arnas zuridun izotzak  
nun dirudien bizirik gabe  
natura zabal hilotzak  
eguzki eder joan guztien  
argia baitu bihotzak  
eta begien milla ernegai  
iraganaren oroitzak.*


*Ez nau larritzen azken orduan  
arnasa galdu beharrak  
bide xumea hesituarren  
amildegiaren larrak,  
ardo berriak onduko ditu  
mahastietan aihen zarrak  
gure oraina arrazoiturik  
beste batzuren biarrak.*



*Ez nau illuntzen baratztatikan  
azken loreak biltzeak  
muga guztien arrazoi billa  
arnas gabe ibiltzeak  
arratsaldeko argi betera  
zentzu denak umiltzeak  
amets betezko loa baitakar  
behin betirako hiltzeak.*

Hitzak: X. Lete  
Musika: M. Laboa





## ZAUDE LASAI

*Askatuko zaituen  
zai ba zaude  
Zaude lasai  
Zaude ziur  
askatuko zaituela  
kateak itsusiak baitira hilotzen gorputzean!!*

Hitzak: J.A. Artze  
Musika: M. Laboa

## SKETX

Komunikazio-Inkomunikazio. Lekeitio 5.

Komunikazioaren mundu ilunean sartu nahi gaituen eszenifikazio bat da.

Lekeitioa-ak:

Soinua, fonetika, irrintzi, karraxi eta abarren bidez espresioaren bilatze obsesibo berezi batzuk dira. Herri honetako euskararen musika-soinu-melodi berezia oinharritzat hartzen duelako du Lekeitio izena serieak.


## LIZARDI

*Lizardi, Rimbaud etorri duk hitaz galdezka  
eta gu ere hire zain geundela  
esan zioagu  
ez hintzela aspaldi azaldu  
etxetik  
eta belatzean eseri gaituk denok  
erlojuak janez  
baina mezularia bidali diagu Alosko torrera  
eskilara luzetan  
beleak uxatzen  
ote hintzen ikus zezan*

*gero kanpaiak entzun dizkiagu  
zakurrak zaunkaka*

*orduan sortu haiz bidetik  
balantzaka  
eta hirekin aurrez aurre jarri garenean  
zerraldo erori haiz gure oinetan  
eta gorpu gogor hintzen  
udazkenaren tronoan  
hertsu dizkiagu begiak  
adiosik ez  
eta goizaldean  
muxika hezur batetan sarturik  
o petit poete  
piroteknariak gabe lurperatu haugu  
baratzan.*

Hitzak: Bernardo Atxaga  
Musika: M.Laboa



## BESTERIK EZAGUTU EZ ETA...

*Besterik ezagutu ez eta  
ase  
irrintzi zakar bat  
hautsi da zure gel<sup>ko</sup> leihoan*

*besterik ezagutu ez eta  
ez ote daude kezkatu  
eta zeuk  
ez diozu jaramanik egin*

*besterik ezagutu ez eta  
ez erien artetik  
ez ote zaizkizun  
geroztik  
txistua dena kexu  
hots du  
zure muinaren billa*

*besterik ezagutu ez eta  
bizitzaren zenbat gauza eder  
eskatzen ari  
eta zuk ez diozu  
jaramonik egin  
besterik  
besterik ezagutu ez eta...  
sabelpeko dardar ozena  
ez zaitu lainotuko  
hilko, hilko sortu artio.*

Hitzak: J.A. Artze  
Musika: M. Laboa



## HERRIA ETA HIZKUNTZA

*Iragan egun batez, ostatu batean  
bi lagun ari ziren ez ta ba betean;  
biak ziren euskaldun zintzoak ustean,  
halaere ezin adi elgarren artean;  
entzuten egona naiz omore tristean.*

*Ez dut osorik hartu baten parabola,  
erderaz mintzo baitzen, berak jakin nola;  
gure herri maiteaz zuela axola,  
hau, bere gain beharra, bertzen men dagola,  
“Gora euskal-herria”, frantsesez ziola.*

*Bertzea oldartu zen euskera garbian;  
“Gure hizkuntza ez da gelduko agian!  
Hori dugu berexik guk Euskal-herrian,  
gainerakotan gaude bertzen negurrian;  
frantses eginak gira joan den aspaldian!*

*Bi gizon horietan, zugaitz onekoa  
batek ondo zuen, bertzeak ostoa;  
gauza arrado hori ez dut gustokoa,  
mendian bizi arren, dut ikustekoa  
gaztainaren aldaxkez jantzirik pagoa.*

*Bat herria goratzen arrotz baten gisa,  
arrotz nahiak berriz herriaren hitza;  
gureak ja egin du, gaiten garbi mintza,  
lano pean bazala galduak gabiltza,  
ez daizke bi nagusi batean zerbitza!*

*Elgarri direlakotz bi gizon jazarri,  
gauza bat bera dute bi pusketan zarrri;  
erakatxi nahi tut nik puxkak elgarri,  
gure hizkuntza eta gure Euskal-herri  
Konparatzen-baitut izaite bateri.*

*Anai-arrebak, entzun ene aho-otsa;  
izaite bat ez daike hezur hutsez osa;  
herria da gorputza, hizkuntza bihotza;  
bertzetik berextean bitarik bakotxa,  
izaite horrendako segurra hil hotza.*

*Batzu herriaz orroit, euskeraz ahantzi  
bertzek euskera maita, herria gaitzetsi;  
hizkuntza ta herria berex ez doatzi,  
berex nahi daukute Konpreniarazi  
bata bertzea gabe ez daizkela bizi.*

Hitzak: Xalbador  
Musika: M. Laboa  
Brassens-i Gorazarrea



## OIES ERRONDAN DABIL

*Oies errondan dabil  
berak baki nundik,  
Karmen gerri politen  
ate ondotxutik. Oies:  
sarritxutan errondan  
ibilli zaitezke.*

*Itsasoko aldetik  
dauko bentanea,  
handixek erasten dau  
Karmenek sokea. Oies  
dirua emon nai ta  
iñork hartu nai ez.*

Lekeitioko kanta herrikoia



## DENBORA GALDUAREN BILA (DONESTEBE)

Nafarroako Donestebe herriari eskeinitako konposizioa.

Instrumentala: Kitarra  
Musika: M. Laboa

## SORTERRIKO KOPLAK

*Oihaneko pagoak blai  
aideratuz hiru elai.  
Ostadarraren harian dira  
hirurak pausatu nahi.*

*Larrosak dira gorriak  
edo bestelan xuriak.  
Hagitzez dira ederragoak  
neskatilaren irriak.*

*Maldan behera urratsa  
betiko bidean latsa.  
Hodei ilunak gaua belzten du  
udazkena da ez bedatsa.*

*Usapalak ostantzean  
huts bat badut bihotzean.  
Zatoz maitea gure etxera  
dostatzerara arratsean.*

*Eder basoan haritza  
haran aldean garitza.  
Fruitu antzera ontzen da hemen  
gizasemeen bizitza.*

*Sagar gorriak dilindan  
damea dago ganbaran  
maite laztanez hartzeko eta  
elkartzeko ohantzean.*

*Iluntasuna abailtzen da  
luma galdu bat bezala  
begiak uso, mingaina arana  
zure bihotza ene aingura.*

*Hurrun gauhontzak uluka  
zakur deslaiak zaunkaka.  
Mende oso bat iraganen dut  
zure ondoan koblak.*

Hitzak: J. Sarrionandia  
Musika: M. Laboa



## IZARREN HAUTSA

*Izarren hautsa egun batean  
bilakatu zen bizigai,  
hauts hartatikan uste gabean  
noizpait ginaden gu ernai.  
Eta horrela bizitzen gera  
sortuz ta sortuz gure aukera  
atsedenik hartu gabe;  
lana eginaz goaz aurrera  
kate horretan denok batera  
gogorki loturik gaude.*

*Gizonak badu inguru latz bat  
menperatzeko premia,  
burruka hortan bizi da eta  
hori du bere egia.  
Ekin ta ekin bilatzen ditu  
saiatze hortan ezin gelditu,  
jakintza eta argia;  
bide illunak nekez aurkitu  
lege berriak noizpait erditu  
hortan jokatzu bizia.  
Gizonen lana jakintza dugu;  
ezagutuz aldatzea,  
naturarekin bat izan eta  
harremanetan sartzea.  
Eta Indarrak ongi errotuz  
gure sustraiak lurrari lotuz  
bertatikan irautea;  
ezaren gudaz baietza sortuz  
ukazioa legetzat hartuz  
beti aurrera joatea.  
Ez dadukanak ongi ohi daki  
eukitzea zein dan ona,  
bere premiak bete nahian  
beti bizi da gizona.*

*Gu ere zerbait bagera eta  
gauden tokitik hemendik bertan  
saia gaitezen ikusten;  
amets eroak baztertuz bertan  
sasi zikiñak behingoz erreta  
bide on bat aukeratzen.  
Gu sortu giñen enbor beretik  
sortuko dira besteak  
burruka hortan iraungo duten  
zuhaitz ardaska gazteak.  
Beren aukeran jabe eraikiz  
ta erortzean berriro jaikiz  
ibiltzen joanen direnak;  
Gertakizunen indar ta argiz  
gure ametsa arrazoi garbiz  
egiztatuko dutenak.*

Hitzak: X. Lete  
Musika: M. Laboa



## HAIKA MUTIL

Laburdiko abesti herrikoia.

Instrumentala: Pianoa.



## ORREAGA (Lekeitio 6)

Irrintzian oinharritutako konposizioa 1978. urtean, Orreagako  
gatatzaren 1200. urteurrenean sortua.



## TXORIA TXORI

*hegoak ebaki banizkion  
nerea izango zen,  
ez zuen aldegingo,  
bainan*

*honela  
ez zen gehiago txoria izango  
eta nik...  
txoria nuen maite.*

Hitzak: J.A. Artze  
Musika: M. Laboa



## LILLURAREN KONTRA

*Lillurarik ez!  
ez dago itzultzerik  
eguna atean dago  
haize hotza dakar  
ez da izango beste goizerik.*

*Tronpatzerik ez!  
bizitza ez da uskeria,  
edan ase arte beretik  
ez da aski izango  
galtzer zaudelarik.*

*Kontsolatzerik ez!  
denbora ez da luzea,  
ustelak lurpera  
bizitza da haundiena  
galtzea litzake galtzea dena.*

Hitzak: B. Brecht  
Musika: M. Laboa

## ZURE BEGIEK

*Zure begiek  
ene maitia  
ba dute biek  
dirdir eztia.*

*Zeruko lore  
miresgarriak  
izarren pare  
xoragarriak.*

*Gazte gaztia  
zira oraino  
egun guzia  
nago zuri so.*

*Zure begiek  
erotzen naute  
eta guziok  
nahi luzkete.*

*Gaua delarik  
mundurat jauzten  
Jauna zerutik  
da urrikaltzen.*

*Zure begien  
goxoino hori  
egon dadien  
eder ta garbi.*

*Ene nahia  
zinez aundia  
zu izatia  
nere andria.*

Hitzak: D. Landart  
Musika: M. Laboa



Mikel  
zure itzala  
gure hartzarrenen tarte gori  
izan da.

Aurrerantzerako  
gorri gori hau  
beltz bero  
ahantzezina bilakatua diguzu,  
eguzki kixkaltzaile ugarien  
betirako babes...

Eskerrik asko

Usurbil



**CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA**  
**GIPUZKOAKO AURREZKI KUTXA PROBINTZIALA**